

Bi mila eta hamabi

Urtzi Urrutikoetxearen zutabeak leitu baino edan egiten ditudalako izango da agian, pasilloan gora eta behera, egunkaria bitan tolestu eta beraren hitzak ozenki errezitatuz, urrutikotik etxerako jauzi dialektikoren batean ezein ñabardura galtzearen beldur. Agian horregatik, bi asteotan eman dituen abisu ezkutuek ezin izan didate ihesik egin:

“Luza daitezela botere borroketan. Independentismoak erronka handiagoak ditu: armak ehorztea, militanteak etxeratzea, zubiak eraikitzea eta batasuna, pertsonena (...) eta herrialdeena. Gero, 2012, Eskozia, Faroe. Iparrera begira” (*Berria*, 2009ko martxoaren 8a)

Ezin uka zutabeak itxiera kriptikoa duela. Ni 2012 horrek intrigatu nau gehien. Hasieran, Eskoziak independentzia lortzeko epea dirudi, baina, nik dakidala, bertako erreferenduma datorren urtean izanen da. Izan ere, balizko arrakasta horren ospakizunak eta –hala izango ahal da– metodoak ere Euskal Herrira hedatuko diren esperantza osoz, hanken giharrak lantzen hasi naiz –oinez irakurtzearena prestaketa fisiko horren partea da– honaino etorriko zaigun *kitlen*, hau da, eskoziar gonaren moda ahalik eta modu duinenez eramateko –euskal independentistok, erakuts egizkidazue zangoak!–

Baina 2012 horretan zer da pasatzekoa, orduan? Urrutikoetxeak hurrengo igandean plazaraturiko zutabearen argi gehiago bilatu nuen: “Aro berria, eta inongo porrotaz pozteaz haratago, aro berria prestatzea hobe”. Dioenez Gales abertzaletzeko plangintzak ere “aro berria prestatzeko lagun dezake”. Misterio.

Aro berri hori zertan datza? 2012an hasiko da? Mundu osora hedatuko da? Herri hautatu bateko independentzia da seinalea? Nafarroako konkistaren bosgarren mendeurrenari erreferentzia egiten dio?



JOSU SANTESTEBAN

Parentesi bat: ikusi dut Nabarralde elkartetik 1512-2012 urtemuga ospatu nahian dabiltzala. Ni kontu handiz ibiliko nintzen, ezer ospatu gabe, ahalegin bizia eginez bostehun urteko porrot nazionala inork gogora ez zezan; dudatan naiz ez ote dugun ordutik aurrera amore eman beharko betiko. Voltairek ere, juduek Lur Agindutik kanpo eman zuten bostehun urteak gogoran, bere *Hiztegi Filosofikoan* galdetzen du, hainbeste denboraren buruan, lurralde baten gaineko eskubide zilegizkoek ez ote zuten preskribituko. Ixten dut parentesia.

Nire aldare partikularrean 2012k berebiziko munta du, hainbestekoa non kutzazain automatikoan zenbaki hori erabiltzen baitut kode sekretutzat, gertukoenek egiazta dezaketenez, nahiz eta beraiek akaso balio sexometrikoegi egotziko zieten. Nik, ordea, beste arrazoiagatik aukeratu nuen zenbaki hori. Maia egutegia urte horretantxe amaitzen da: maiek ez

zuten 2012tik aurrerako denborarik aurreikusi; ondorengoa, beraz, Aro Berria izanen da, dudarik ez.

Krisi honek ekarriko duen, edo 2012rako kalkulatzeko den lurraren gainpopulazioak (7.000 milioi lagunekoa); edo Hugo Chavezek –edo Obamak?–, herriaren amoreagatik, urte horretantxe bere burua berrautakertarako aurkezteak; edo Michael Phelps garaile olinpikoak, marioanaren aferagatik sumindurik, Londreseko Olinpiadetan parte hartu nahi ez izateak... Oraindik ez dakigu zein den mundua goitik behera eraldatuko duen eragile ñimiñoa. Zorionekoak ezjakinak!

Baliteke munduko herritarren %0,05ak estatu independente bat eratzea izatea Aro Berriak, hasiko bada, gutaz itxaron duena.

Edo, besterik gabe, zu edo ni bezalako marigorri baten hegal kolpe ezaxolatia, taberna bateko terrazan zerbitzariari kontua eskatzen diogun bitartean. ■

«

Aro berri hori zertan datza? 2012an hasiko da? Mundu osora hedatuko da? Herri hautatu bateko independentzia da seinalea? Nafarroako konkistaren bosgarren mendeurrenari erreferentzia egiten dio?

»



irudia:

Antton Olariaga